

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jardueri dagokionez, negozio-ereduak funtzionatzeko enpresak egin beharreko ekintza garrantzitsuenak adostu behar dira. Lehenik eta behin “tarhiben” emango den zerbitzua prestatu behar da, kasu honetan errefuxiatuen harrera plana eta koordinazioa nolakoa izango den.

Horretarako aurreikusten dugu ostatua, janaria eta osasuna direla lehen asetu beharrekoak. Ondoren etorriko litzateke aholkularitza legala eta eskubideak ziurtatzeko CEAR bezalako gobernuz kanpoko erakundeekin elkar-lana egitea, funtsezko harremana gauzatzuz.

Behin plana ondo antolatuta izanda eta kanalak martxan egonda, bezeroekin harremanetan jartzea izango zen ondorengo urratsa. Honek proiektuan interesa erakutsiko balu, planaren ezarpenaren faseak adostuko genituzke. Harrera planak izango duen iraupena, intentsitatea, zenbati zuzendua egongo den eta aurretik azaldutako fase desberdinen ordena kronologikoa adostu.

Hau da, proiektuak iraungo duen hilabete kopurua zehaztu beharko da, ondoren zenbati eta zeini zuzenduta egongo den erabakiz eta azkenik “tarhiben” ematen diren faseen ordena adostu beharko da. Hori guztia bezeroak dituen baliabide material eta ekonomiko guztiak kontuan izanda eta behin hori guztia eginda proiektuarekin hasteko prest egongo ginateke.